


EKONOMIA ERAGILEEN KONFIANTZA

Kontsumitzaileen eta enpresen konfiantzak zertxobait okerrera egin du

Familien konfiantza indizea



Laboral kutxak osatzen duen EAEko familien konfiantza indizeak zertxobait okerrera egin zuen 2018ko hirugarren hiruhilekoan eta -0,5eko balioa markatu zuen, aurreko hiruhilekoaren emaitzaren aldean 1,5 puntuko galera delarik. Hala eta guztiz ere, indizearen bilakaerak oso ibilbide laua erakusten du azken hiruhilekoetan. Ekonomia hazkundearen aurreikuspenetan egin diren beheranzko zuzenketak, ezegonkortasun politikoa, merkataritza gerren eragina eta energiaren garestitzea dira kontsumitzaileen konfiantza gutxitu duten faktoreetako batzuk.


Oraindik balio positibotan dauden arren, ekonomia orokorraren eta langabeziaren bilakaeraz dituzten igurikimenak ahuldu dira. Beste aldetik, familiaren ekonomiaren bilakaeraz eta aurrezteko ahalmenaz dituzten irizkiak balio negatibotan kokatu dira berriro.

FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

	2016	2017	2017			2018		
			II	III	IV	I	II	III
Kontsumitzaileen konfiantza	-5	1	5	0,4	1	1	2	-0,5
Ekonomia orokorra	-7	6	12	9	6	5	3	1
Familien ekonomia	-5	-5	-3	-5	-4	-6	-3	-4
Langabeziaren bilakaera	9	12	23	7	9	12	15	5
Aurrezteko ahalmena	-12	-10	-12	-9	-8	-10	-7	-5
Prezioen bilakaera	14	-17	-18	-6	-17	-24	-18	-23
Erosteko momentua	-8	-3	-3	-5	-2	-5	-11	-15
Erosketen gauzatzea	-10	-7	-8	-2	-7	-3	-6	-5


Iturria: Laboral Kutxa.

Enpresarien konfiantza indizea



Beste aldetik, enpresen konfiantza indizeak, hori ere Laboral kutxak argitaratuta, 54,2ko balioa hartu du 2018ko laugarren hiruhilekoko inkestan. Datu horrek narriadura neurritsua ekarri du aurreko hiruhilekoetan hauteman zen baikortasunaren aldean. Oraindik 50 puntuetatik gora dagoenez, indizea hedatze eremuan kokatzen da. Halere, EAEko enpresen igurikimenak ez dira horren baikorrak ekonomiak 2018ko azken hilekoetan izango duen bilakaeraz. Fakturazioaz, jardueraz eta eskari berriez dituzten igurikimenak oraindik positiboak dira.

Enpresarien igurikimenak. 2018ko IV hiruhilekoa



Iturria: Laboral kutxa.